

INTEMPERIES

(babes bila)

LOURDES OÑEDERRA



n a r r a t i b a .

erain

INTEMPERIES
(babes bila)

Narratiba, 79

Lourdes Oñederra

INTEMPERIES

(babes bila)



Rage, rage against the dying of the light.

DYLAN THOMAS, "Do not go gentle into
that good night"

**We are but older children, dear,
who fret to find our bedtime near.**

LEWIS CARROLL,
Through the Looking-Glass

Aurkibidea

I. Denbora desberdin ari da igarotzen	11
II. 1 Luziak lehendabiziko aldiz ikusten du Víctor . . .	37
II. 2 Abuztuaren azken asteko astelehena	39
II. 3 Irailaren hasierako astelehen bat	43
II. 4 Irailaren 13a, Luzia eta medikua terraza batean. .	52
II. 5 Urriaren 5a, ostiral eguerdia	56
II. 6 Urriaren erdi aldera	63
II. 7 Urria da oraindik. Luzia etxera sartzen	71
II. 8 Azaroa. Gasteizko geltokian	79
II. 9 Abenduak 13, Santa Luzia eguna	87
II. 10 Otsaila honezkero, kanpoan ilun	91
II. 11 Martxoa bukatzen. Etxerantz doa Luzia	105
II. 12 Apirilaren hasiera, laneguna	117
II. 13 Uztailaren azkena, goizeko ordu txikiak	124
II. 14 Abuztua berriz, Luzia kalean.	130
II. 15 Iraila. Euria ari du Madrilen	134
II. 16 Azaroa, hilaren azken aldera	138
II. 17 Abenduak 9, larunbata. Eva eta Luzia kalean . . .	149
II. 18 Abendua, autoz doa Luzia Madrila	158
II. 19 Luzia Víctorren zain dago.	169
III. Abenduak 24. Kaleko zarata	177

I

Ez du bakoitzak bizitzeko
modu bakar bat baizik,
asmatu edo ez asmatu,
aurrera doana berez bezala.

Batzuetan ematen du hartzen ez ditugun erabakiek eusten digutela,
nahi ez baditugu ere hausten ez ditugun loturek,
gogoz kontra eta ito beharrean estutzen gaituzten inertziek
laguntzen digutela bizirik irauten.

Denbora desberdin ari da igarotzen. Luziak ez daki noiztik, noiz hasi zen denboraren desberdintasun hori, aldaparik gabeko igarotze hori, iraganetik orainera kolore aldaketarik gabe, bide laua, oharkabean pasatze hori lehenetik orainera, urteak laburtu eta minutuak luzatu, loditu egin balira bezala. Goizak arratsaldeetatik urrutiratuz doaz, eta motel, oso motel gogoratzen dira goizean gertatuak, baina garden, gordin agertzen dira duela hogeita hamar urte entzundako esaldiak, ikusitako begiradak.

Gorputza. Gorputzaren bestelakotze geldiezin hori. Ezinbestean, inevitably, inevitabilmente.

Adani agindu baliote ezaguera lortuko zuela, ez zuen ziu-
rrenik sagarra jango. Jainkoa bezalakoa izango zela esan zioten, ordea, sugeak eta emakumeak. Ezaguera lortzeagatik ez zuen gauza debekaturik egingo gizonak, ezin baita desiratu ezagutzen ez dena. Baina Jainkoa bezalakoa izate hori bai zen desiragarri. Hitzak, hitz diferenteak, hitz ezkutatzailleak. Eta inbidia, bestea bezainbestekoa izan nahi izatea, hura bezalakoa izatea. Jainkoa bezalakoa. Eta zigortu egin gintuen Jainkoak eta ez gara jainko. Adanen erruagatik, agian sekula izan

ez zen Adanen batengatik, erori egiten gara, eta zahartu, eta hondatu, eta zikindu, ez gara betirako, bagoaz.

Luziaren ametsetan bera da lehengo batean ikusi zuen Ken Loachen filmean beldurrez pixa egiten zuen emakumea, edo mesanotxean daukan polizia nobelan haurtzaroko mamuek hiltzaile bihurtu zuten paranoikoa. Eta zinera joan behar izaten du batzuetan Luziak ezinbestean. Eta halako nobelak irakurri behar ditu argia itzali baino lehen, lo egingo badu, loak hartuko badu. Gero loak amets ikaragarri horiek ekartzen dizkio eta hurrengo goizean, edo goizaldeko ordu txikietan, esnatzean, ezin izaten da erabat askatu ametsetatik, nolabait, nonbaiten benetan gertatu balira, balitzaizkio bezala.

Lana, jakinduriaren atzetik ibiltzea, ez da besterik gelditzen. Luzia lanak salbatu izan du eta badaki berriz ere salbatuko duela. Posible den salbazio txiki hori. Eguneroko putzutik ateratzen zaituena, eguneroko tristura ahaztarazten dizuna. Batzubatuetan poza ere ematen dizuna, eta plazera, eta zerbaiterako bizi zarela sinetsarazten dizuna: zerbaitegatik, zerbaiterako, ezagutzaren zati bat iristeko, nahiz jainko ez izan. Gezurra balitz ere, ilusiorako aukera. Ataskotik, noraezetik ateratzen zaitu. Ordutegia jartzen dio egunari eta mugarriak gauari.

Lana.

Sexurako aukerak urtu diren aro honetan.

Sexua, jainko izatetik gertuen jarri izan gaituen hori: beste hitz joko bat agian, hitzekin jolastu eta geure buruak engainatzea, gezurrekin bizitzea. Desberdina zen edonola, bazuen zerbait edo hala zirudien orduan.

Orduan.

Orain Luziak badaki bere jarrera ere ez dela lehengoa, nahiz ia beti ahaztu egiten den horretaz eta pentsatzen duen besteak aldatu direla, ez diotela berdin begiratzen, ez dutela desiratzen eta horregatik ez direla bigun eta atsegin, gogor eta hotz baizik. Luziak badaki (batzuetan daki) berak ere ez duela asko espero. Ikusi duela. Ikasi egin duela eta alfergura sentitzen duela saio berriak egiteko, ez duela honezkero gehiegi espero eta horregatik ez dela ahalegintzen sobera, ez dela eskatzera ateratzen eta, horregatik agian, horregatik ere bai agian, ez diotela eskaintzen, ez diotela ematen, ez duela hartzen eta bakarrik ari dela gelditzen.

Bakarrik.

Bakarrik, eta triste, eta lasai. Martinengandik banandu zenean bezala, erabakia hartu edo erabakiak bera hartu zutenean bezala. Ziur egoteak ematen duen lasaitasuna. Ez zegoen haserre. Hilabetetan, urtetan, izanak zituen haserrealdiak. Hain da nekosoa haserre. Haserrearen gatazka, eta zalantza. Norberaren ezinegona besteari egozten zaion aro zaratatsu hori.

Luzaroan pentsatu zuen Luziak ez zela gai izango senarra uzteko, berarekin oheratu baino telebista aurrean siesta egin nahiago zuen gizon haren ondotik alde egiteko. Ez zen ausartzen, nahiz haserre, oso haserre zegoen, eta minduta. Martin gero eta maizago gelditzen zen lankideekin zerbait hartzen berandu arte astegunetan. Nabarmen zen Luziaren istorioek aspertu egiten zutela, nahiz entzuten zituen beti. Isilik. Edukazioz.

Luziak uste zuen ez zela gauza izango uzteko, banantzeko, behin eta berriz haserretu, samindu eta negar egin arren, ez zuelako alde egiten. Baina egun batean nolabait etorri zen erabakia eta orduan ez zuen zalantzarik izan, erabateko ausardia etorri zitzaion, eta joan egin zen, isilik, behingoz esplikaziorik eman gabe, eskatu ere egin gabe, hain baitzen garbi dena bat-batean.

Lasaitasun ia bake hura.

Eta, gero, oinaze latza, oinaze jasanezin, kontaezin hura. Garrasi isila, barrenean bakarrik entzuten dena, eztarriak atera ezin duena, egin ez daitekeen negarra.

Orduko penaz oroitzean pentsatzen du Luziak galdu-tako amodioaren urraduraren laztasunaz. Hori baino askoz okerragoa izan behar duela Evaren oinazeak, gehien maite, gehien behar dituzunak zure ondoan hiltzeak. Derrepentean. Betiko. Izugarria izan behar du. Berak ez luke jasango halakorik. Ala? Ba al du zentzurik, konpara al daitezke oinazeak, baten eta besteren zauriak? Zauririk txikienak ere min ematen dio jasaten duenari. Bai, bereak ez dira beste batzuenak bezain zauri larriak izango, baina min hartu du behin baino gehiagotan Luziak bizitzan zehar, eta Martinengandik aldentzeak min eman zion. Berak jasandako oinazerik handienetakoa, luzea izan zena gainera. Orain behintzat, atzera begira, hala iruditzen zaio.

Adinarekin Luziak denbora gutxi dagoela ikasi du, eta asko behar dela edozertarako. Horregatik gonbidatu zuen neurologoa, Víctor, Gabon gaua berarekin igarotzera. Ez zuen gehiegi pentsatu, ez zion bere buruari zalantzarik

egiteko aukerarik eman. Edo ez zuen izan. Gizonaren aurpegian hautemandako zerbaitek osarazi zion esaldia:

–Zergatik ez zera Donostira etortzen nerekin afaltzera?

Baietz erantzun zion, lotsatuta bezala, baina baietz, bueno, ba baietz.

Ez daki nola bukatuko den gaua. Ez daki elkarrekin oheratuko diren ala ez. Berdin dio. Orain, honezkero, hori da gutxienekoa.

Horrenbeste hitz behar dira konturik txikiena azaltzeko.

Joandako garai haietan askotan errazagoa izaten zen gizon batekin oheratzea beste nolabait bukatzea baino: hainbeste esplikazio eskatzen zuen ukoak, hainbeste justifikazio.

Agian zaharregia da baina oheratzeko, beste norbaitekin oheratzeko, gizon batekin oheratzeko. Azken urteetan gauzak aldatu egin zaizkio Luziari. Lehen-lehen gizonengana hurbilketa beti iragazten zuen, nolabait, oheratu-ez oheratu aukeraren bahetik. Gero, honezkero ezkondata zegoenean, bere senarraz gainerako beste inorekin oheratzeko aukera itxita bazegoen ere, ia beti pentsatzen zuen, gizon bat ezagutzen zuenean, berarekin oheratzeko modukoa ote zen edo ez. Gizon batzuekin fantasiak izaten zituen, beste zenbaitekin ez. Ez zion buelta askorik ematen. Nahiko automatikoa zen. Beranduago, duela gutxiago (ez daki halere noiz), erabat utzi egin zion hori egiteari. Martinengandik banandu ondorenerako behintzat, galdua zuen ohitura.

Gogoratu gogoratzen da, baina urruti gelditu zaio. Oso urruti, nahiz urteak ez diren horrenbeste. Ez, ez dira

horrenbeste, baina, zerbaitegatik, ematen du azken urteak, hain laster igaro diren urte hauek, mugarriak ezabatzeko, oroitzapenak lausotzeko ahalmen berezia izan dutela. Kontua galtzen da eta gauzak gertu edo urrun gelditzeak ez du urte kopuruarekin lotura zuzenik.

–Adin zail honetan –esan zion ginekologialariak azken azterketan.

Adin zail honetan. Ba al da adin errazik.

Oraindik erakargarri gerta ote daitekeen zalantza urtzen ari zaio eta nahasten erakargarritasun sexuala galtzearen la-saitasunaren esperantzarekin. Zalantzaren eta itxaropenaren artean esekita dago nonbaiten, zintzilik ezerezaren gainean, eusteko aski sendotasunik ez duten uste eta beldur horien artean, zalantzaren eta esperantzaren artean, ezezagunaren amildegirantz begira. Batzuetan lasai, ezerezaren arintasunagatik, ongi. Beste batzuetan, ezinegon hori, ezereza zulo bihurtzen denean, hala ikusten denean.

Berrogeita hamar urte. Berrogeita hamar. 50. Adin horretan ez dago besterik gabe emakumea denik, besterik gabeko emakumerik. Norbaiten emazte zara, edo ama. Edo zerbait zara: irakasle, garbitzaile, edo politikari. Norbaiten irakaslea, nonbaiteko garbitzailea edo norbaitentzako, partiduren bateko karguduna edo militantea behintzat, baina ez besterik gabe zu, berrogeita hamar urteko pertsona bat. Zer egiten da etxean, goizean ohetik jaikitzean.

Luzia ez da oroitzen nola gertatu zen, zergatik gelditu zen etxean. Badaki noiz izan zen, nola kalkulatu zuen nahiko diru gelditzen zitzaiola lanik egin gabe bizitzeko.

Lanbro artean bezala gogoratzen du nekatuta zegoela, hori esan ziola galdetzen zion jendeari. Jendeak beti galdetzen baitu, galdetuko ez balu bezala gehienetan, baina beti galdetzen du jendeak besteen gauzez, besteen bizitzaz, besteen nola eta zergatik eta noiz eta norekin inguruan.

Luzia beti egia esan nahian ibili da. Besteekin kontuz ibiltzen diren horietakoa izan da txikitatik. Minik ez ematen saiatu den neska txintxo, besteren lekuan jarri den emakumea. Besteen artean, ordea, bada nolabait hori dakienik, Luzia bezalako jendea aurkitzeko radar modukoren bat duenik, goxo-goxo min ematen duten horietakorik, lagunduz bezala kaka eginda uzten zaituenik. Badakitenak zer esan, zer galdetu bestearen barrenak nahasi eta beldur ezkutenak pizteko. Beren miseriarekin bestearen ahulezia asintzeko abilidadea garatu dutenak edo horretarako senaz jaio direnak. Ez dute, beharbada, jakinaren gainean egiten, besterik gabe beren elikagaia bilatzen dute eta lortu egiten dute. Bestearen gaintik gelditzea. Bestea txikiagotzea. Eta hori da bizitzeko behar dutena. Bai, agian ez dute jakinaren gainean egingo, baina nahita egiten dute. Esate baterako Martinek esaten zionean Luziari oso begi politak zituela, baina egiten zituen imintzioek urduritasuna adierazten zutela eta erakargarritasuna galtzen zuela. Martinek oinen azpiko lurra kentzen zion Luziari, berarekin estuago lotzeko, bere beharra izan zezan, bere besoa behar zezan Luziak ibiltzeko. Martin gaiztoa zen edo gaizto bihurtzen ari zen. Luziak orduan ez zekien eta bere buruari egozten zion, beti bezala, errua. Ahulezia. Ezjakintasuna. Eznahikotasuna.

Beti bezala.

Beti bezala, errua.

Alde egin zuen, Martinengandik ihesi, izeba Prudenen herentzia iritsi zitzaionean. Atzerrian ibili zen. Gero itzuli egin zen, baina ez erabat, inoiz ez erabat. Beti bilatzen du aitzakiaren bat kanpora joateko, hiritik, herritik, aberritik. Tarte luzeago edo laburrago baterako. Baina itzultzean, itzulaldi bakoitzean betikoa aurkitzen du. Gainera itzulaldi bakoitza aurrekoa baino okerragoa da, bera zaharragoa delako eta gero eta gehiago kostatzen zaiolako kokatzea, bere gizartea omen den horretan egokitzea. Berriz alde egiteak ere gero eta alfergura handiagoa ematen dio.

Lanean bakarrik du Luziak, batzuetan, bakea. Aleluia. Haendel. Messias. Hallelujah. Oinazea sentitu du ia, halako batean musikari kasu egin dionean. Irratiko kanal klasikoa jarrita lan egiten du eta hori dauka orain ere piztuta. Ordenagailua ixtean ez du itzali. Bai, lanak salbatzen du tristuraz erotzetik, pozten da pentsamendua sakon erabili beharraz irakurtzen dituenak ulertzeko, eta poztu egiten da halaber gustatu egiten zaiolako gauza horiek irakurtzea, irakurtzen dituenak ulertzeak plazera ematen diolako eta, horrela, denbora puska luzeak igaro ditzakeelako beste ezertaz gogoratu gabe, bere inguruaz gogoratu gabe, bere buruaz gogoratu gabe.

Arimaren beste alderdi hori.

Bihotzaren oihartzun ilunena.

Gainditu egiten du nazkatzeraino bere joera dramatikoa. Halaxe zegoen, nazkatuta, proiektuaren koordi-

natzailearekin afaldu zuenean eta hark Madrileko afasikoa aipatu zionean Pariseko hizkuntzalarien biltzarrean orain pare bat urte.

Ez du bakarrik eta triste bizi nahi.

Zein bakarrik dagoen. Azken batean bakarrik egotea ez baita inguruan inor ez izatea (beti dago norbait inguruan), baizik norbera bezalako besterik ez egotea, edo oso gutxi, eta gutxi horiek urruti egotea, ezin izatea horiekin harremana erraz izan, harreman aski izan.

Gonbidatuen logelako ohea ere prest dago, garbitzaileari ohar bat utzi zion izarak jar zitzaizkion. Begiratu egingo du badaezpada. Beharra sortuko ez balitz, aukeran, ez lioke aipatuko Víctorri gelarena. Beste gelarena, bere gelaz gainerako bestearena, gelen, logelen kontua. Ez luke ukituko. Lehenbailehen afaltzen hasi, eguraldiaz hitz egin eta bidaiatzeko tren orduz eta tren berrien prezioez, geroxeago beharbada laneko arazoez, eta Evari buruz. Baina non esango dio gauzak uzteko iristean?

Iristean. Víctor iristean bere etxera.

Xukadera garbiak utzi ditu leiho ondoko silaren gainean.

Egongelara itzuli da.

... *bei dieser Frühlingshitze nach dem endlos langen Winter...* Christa Wolfen nobela batean aurkitu du esaldi hori. Ulertu duelako poztu da. Ez zaio alemana horrenbeste ere ahaztu. Behin eta berriz irakurri du, buruz ikasi du ia, pentsatuz, sentituz aurten ere, hemen ere, hor dagoela bera, negu luze amaigabearen ondorengo udaberriko beroaren

beharrean, Wolfen kontraera inguratzen duen bero horren beharrean. Berdin dio zer kontatzen duen, zer kontatuko duen hortik aurrera nobelak. Ez daki, ez du irakurri nobela hori edo ahaztu egin zaio. Luziari beroarena iritsi zaio, irakurri ahala sumatzen duelako bizitzaren leku horretan dagoela, udaberriko bat-bateko bero horren aurrean, eta iritsi zaion bezala iritsi zaio, alemanez irakurri duelako, arrotz baina hurbil. Hitz berrietan, errealitate errepikatu eta sortu berria.

Idazle bat formatu bila bezala dabil esamolde bila, bere barrenak bere kanpoari azaltzeko, bere sentimenduak bere buruari. Eta iritsi zaion bezala iritsi zaio esaldia, urduri dagoelako, gertatzera doanaren aurrean ez dakielako nola jarri eta gertatzeaz dagoena axola zaiolako biziki. Horregatik hasi da salako apaletako nobelak modu aleatorioan hartzen eta puskaka irakurtzen, Wolfenaren pasarte horrek harrapatu duen arte.

Formatu bat, gidoi bat gauzak kontatzeko, bizitza bideratzeko. Horregatik bide dira erakargarri nobelak, egitura dutelako, filmek bezala, bizitzak ez bezala. Kontsolagarri dira nobelak, idazleak, tirano harro horrek mesede hori egiten digulako: egiturarik gabea egituradun eman, kontatu. Noski, horretarako, sinesteko prest egon behar du irakurleak.

Hala egon nahi luke Luziak.

Sinesteko prest.

Segundo batzuk pasa ditu esaldia errepikatzen ... *bei dieser Frühlingshitze nach dem endlos langen Winter...*, baina bat-batean luze egin zaizkio segundo horiek eta presaka hasi

da alde batetik bestera gauzak jasotzen, gauzak ateratzen, paperak eta egunkari pilatuak alde batetik bestera eramaten, mahai zapiak dauden armairua irekitzen, eta ixten berriro, oraindik ez duelako erabaki zein plater jarriko dituen.

Taka bere zakur handiak sofa gainetik begiratzen dio. Lasai, triste. Boxerren gozotasun motel hori. Ez lioke utzi behar sofa gainean egoten.

Víctorrek honezkero hirurogei urte izango dituela pentsatzen du, eta afaria gustatuko ote zaion, ez duela oraindik mahai zapia aukeratu. Badu bat lore handi batzuk dituena, oso ondo gelditzen da plater zuriekin, baina ardo orban baten arrasto nabarmen samarra du erdi-erdian. Martinek ere pasako zituen honezkero berrogeita hamarrrak. Bai, klaro pasako zituela. Eta oraindik ere maite duela. *Todavía te quiero*. Horrela atera zaio, erdaraz eta harekin ariko balitz bezala aurrez aurre hizketan. Auskalo zergatik, zeren Martinekin euskaraz egiten baitzuen berak. Gauza kuriozosa da burua. Pentsamendua eta hizkuntzarena ere gogora datorkio, eta inork ez dakiela horretaz gauza handirik, nahiz askok ziurtasun osoz hitz egiten duten. Jakingo balute bezala. Gezur klaserik txarrena da hori, nahikoa jakin ez eta zerbait ziurtzat ematea. Jendea gainera beti dago gertu baieztapen biribilak sinesteko. Zenbat gezur gure inguruan, eleaniztasuna eta horrelako gauzez, hizkuntza txikien babesaz. Baina jendeak ziurtasunak nahi ditu eta beti dago norbait manipulatzeko prest. Batzuek nahi gabe, zerbait egiteagatik, norbait izan nahian. Edozerk balio du.